# Pribatuen Iragarkiak

## GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA

IRAGARKIA, Ohiko Batzar Nagusirako deia egiteko dena. 5311

IRAGARKIA, Batzar Nagusi Eratzailerako deia egiteko dena. 5312

# Anuncios Particulares

## CAJA GIIPUZKOA SAN SEBASTIAN

ANUNCIO de convocatoria de Asamblea General Ordinaria. 5311

ANUNCIO de convocatoria de Asamblea General Constituyente. 5312

# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-1761

AGINDUA, 2002ko otsailaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena. Honen bidez baimena ematen da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko honako titulazio hau desagerrarazteko: Meatze-ingeniari Teknikoa, Meatzeetako Instalakuntza Elektromekanikoetako espezialitatean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea antolatzen duen ekainaren 29ko 19/1998 Legeak, bere 10. artikuluan, unibertsitate antolakuntzaren irizpideak eta helburuak finkatzen ditu, tituluei, zentroei eta tituluak lurraldeka banatzeari dagokien guztian.

Lege horrek aurreikusitakoa garatzeko, uztailaren 20ko 294/1999 Dekretuak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko titulazio berrien sarrera arautu zuen, eta aurretik zeudenak aldatzeko edo desagerrarazteko arauak eman zituen.

Ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 14.1.b) artikuluarekin bat etorriz, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak, 2000ko irailaren 13ko bileran, aldeko txostena eman zuen Meatze-ingeniari Teknikoko Titulua (Meatzeetako Instalakuntza Elektromekanikoetako espezialitatean) desagerrarazteko.

Unibertsitate Kontseiluak, 2000ko uztailaren 13an, aldeko txostena eman zuen Lan Publikoetako Ingeniaritza Teknikoa (Eraikuntza Zibiletako espezialitatea) Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan sartzeko. Aipatutako titulu hori ezartzeko, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gizarte Kontseiluak honako baldintza hau jarri zuen: une horretan eskolan zeuden Meatze-ingeniaritza Teknikoko

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-1761

ORDEN de 28 de febrero de 2002, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la extinción de la titulación de Ingeniero Técnico de Minas, especialidad en Instalaciones Electromecánicas Mineras en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

El artículo 10 de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, fija los criterios y objetivos de ordenación universitaria en materia de titulaciones, centros y distribución territorial de las titulaciones.

En desarrollo de dicha previsión, el Decreto 294/1999, de 20 de julio, regula la implantación de nuevas titulaciones, así como la modificación y supresión de las existentes, en la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Según establece el artículo 14.1.b) de la Ley 19/1998, de 29 de junio, el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria en su sesión de 13 de septiembre de 2000 informó favorablemente la extinción de la titulación de Ingeniero Técnico de Minas, especialidad en Instalaciones Electromecánicas Mineras.

Con fecha 13 de julio de 2000, el Consejo de Universidades informó favorablemente la implantación en la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Minera de las enseñanzas de Ingeniería Técnica en Obras Públicas, especialidad en Construcciones Civiles. Para la implantación de este título el Consejo Social de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea puso como condición que se suprimiera una de las

lau espezialitateetatik bat, desagerrarazi behar zen. Erabaki hori betetzeko, Eskolako Ikastegi Batzarrak egoera aztertu eta Meatzeetako Instalazio Elektromekanikoko espezialitatea ezabatzea erabaki zuen. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2000ko irailaren 14ko aginduak, aipatutako unibertsitate-eskolan, beste zenbaiten artean, Lan Publikoetako Ingeniaritza Teknikoa (Eraikuntza Zibiletako espezialitatea) ezartzeko baimena eman zuen.

Unibertsitate Kontseilua, Koordinazio eta Plangintzarako Batzordean bilduta, aipatutako irakaskuntza horiek ezartzearen alde agertu zen 2000ko urriaren 20an egindako bileran.

Hori guzti hori dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Baimena ematea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Meatze Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan, egun irakasten den Meatze-ingeniari Teknikoko Titulua (Meatzeetako Instalakuntza Elektromekanikoetako espezialitatean), 2000-2001 ikasturtetik aurrera, pixkanaka-pixkanaka desagerrarazteko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honek ematen du aipatutako titulazioaren irakaskuntza desagerrarazteko baimena, baina desagerrarazte hori aurrera eramateko, Gizarte Kontseiluaren proposamenari, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak adostutakoari jarraitu behar zaie.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko otsailaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
ANJELES IZTUETA AZKUE.

cuatro especialidades de Ingeniería Técnica de Minas que se imparten en la Escuela. Cumpliendo con este acuerdo, y analizada la situación, la Junta de Centro de la Escuela optó por la extinción de la especialidad en Instalaciones Electromecánicas Mineras. Por Orden de 14 de septiembre de 2000, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, entre otras, se autorizó la implantación de las enseñanzas de Ingeniería Técnica en Obras Públicas, especialidad en Construcciones Civiles en la citada Escuela Universitaria.

Por su parte, el Consejo de Universidades, en sesión de su Comisión de Coordinación y Planificación de 20 de octubre de 2000, informó favorablemente la autorización de dichas enseñanzas.

Por todo ello,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Autorizar la extinción progresiva de la titulación de Ingeniero Técnico de Minas, especialidad en Instalaciones Electromecánicas Mineras, que se imparte en la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Minera de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea a partir del curso 2000-2001.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La extinción de las enseñanzas conducentes a la titulación autorizada en la presente Orden se llevará a efecto en los términos recogidos en la propuesta de extinción presentada por el Consejo Social y acordados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2002.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
ANJELES IZTUETA AZKUE.